



6 Erasmus+

6.1. Egitasmoa	178
6.2. Helburuak	179
6.3. Erasmus+ egitasmoaren egitura	180
6.4. Nork har dezake parte?	181
6.5. Egitasmoan parte hartzen duten herrialdeak	181
6.6. Ekintzen deskribapena	182
6.6.A. 1. Ekintza: Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta	182
a. 1. Ekintza. Gazteen trukeak	182
b. 1. Ekintza. Gazteen dinamizatzailen mugikortasuna: prestakuntza eta sareko lana	183
c. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS)	184
d. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzuaren eskala handiko ekitaldiak (EVS LS)	185
6.6.B. 2. Ekintza: Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana	186
a. 2. Ekintza. Elkarketa estrategikoak	186
b. 2. Ekintza. Gaitasunak indartzeko proiektuak	188
6.6.C. 3. Ekintza. Erreforma politikoei laguntzea	189
a. 3. Ekintza. Elkarrizketa egituratua: topaketak gazteen eta gazteen arloko arduradun politikoen artea	190
6.7. Erasmus+ hizkuntzak ikasteko laguntza	190

LABURPENA

Europar batasunaren programa bikaina da ERASMUS+. ERASMUS bekei esker 2.000.000 gaztek baino gehiagok ikasi dute atzerrian. Horrek ezagun bihurtu du. Hainbat dira azpimarratzeko ezaugarriak.

- Atal honetan ERASMUS + programak gazteei begira zer-nolako inplikazio dituen aztertuko dugu eta gazteentzat proposatzen dituen ekintzak.
- Europako boluntario zerbitzura jotzea da gazte batek “bere kasa” egin dezakeen ekintza bakarra. Gazteak bilatzen du interesgarritzat duen proiektua, erakundera jotzen du eta eskabidea egiten du.
- Gazte-trukeak eta elkarketa estrategikoak gazteek hain ezagunak ez dituzten dinamikak dira, nahiz eta euren ahalmen handia izan, hainbat herrialdetako gazteen arteko lankidetzeta eta trukea garatu baitaiteke.

6 Erasmus+

6.1. PROGRAMA

ERASMUS+ Europar Batasunaren hezkuntza-, prestakuntza-, gazteria- eta kirol-egitasmo berria da, 2014ko urtarrilaren 1etik **2020ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo dena.**

ERASMUS+ egitasmoak **bere baitan hartzen ditu** aurreko “**Etengabeko Prestakuntza** (Erasmus, Leonardo da Vinci, Comenius eta Grundtvig)”, “**Gazteak Ekinean**”, “**Erasmus Mundus**”, **Alfa III**, **Tempus eta Edulink** egitasmoak.

ERASMUS+ egitasmoak 14.774.524 milioi euroko aurrekontua izango du 2014-2020 epealdian, eta horietatik % 10 gazteria-proiektuetara bideratuko da (2016erako aurrekontua: 173,5 milioi €).

Honako hauek dira egitasmoaren bereizgarriak:

- Gaitasunen eta kualifikazioen aintzatespena eta balidazioa
- Nazioarteko dimentsioa
- Hizkuntza-aniztasuna
- Berdintasuna eta inklusioa
- Parte-hartzaileen babesa eta segurtasuna

Egitasmoa indarraldiaren lehen urtean dago, eta, horrenbestez, hainbat gauza aldatuz joan daitezke. Gida honetan egitasmo osoa deskribatuko dugu, baina gazteei gehien bideratzen zaizkien ekintzetan jarriko dugu arreta, gazteak baitira gidaren helburu.

• Egitasmoaren gida

Europako Batzordeak Erasmus+ egitasmoari buruz prestatutako webgunean aurkituko duzu egitasmoari buruzko informazio guztia. Webguneak eta edukiak eguneratu ahala, informazio gehiago aurkituko duzu, bai Gazteaukeraren eta Injuveren webguneetan.

http://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/index_es.htm

http://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/documents/erasmus-plus-programme-guide_es.pdf

http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-5072/eu/contenidos/noticia/juv_accion/eu_16408/ekinean.html

6.2. Helburuak

Honako hauek dira ERASMUS+ egitasmoaren **helburuak**, gazteriaren arloari dagokionez:

- Gazteen oinarrizko gaitasunen maila hobetzea.
- Gazteen parte-hartzea sustatzea Europako bizitza demokratikoan eta lan-merkatuan.
- Herritartasun aktiboa, kulturen arteko elkarrizketa eta gizarte-integrazioa sustatzea.
- Gazteriaren arloaren eta lan-merkatuaren arteko loturak indartzea.
- Lan-merkatuan hobekuntzak sustatzea, gazteriaren arloko erakundeen eta beste alderdi interesatu batzuen arteko elkarlana areagotuta.
- Toki-mailako, eskualde-mailako eta nazio-mailako politiken erreformak osatzea.
- Ezagutzan eta esperientzian oinarritutako gazte-politikaren garapena babestea.

- Ikaskuntza ez formalaren eta informalaren aintzatespena.
- Gazteen jardueren nazioarteko dimentsioa indartzea.
- Gazteriaren arloko langileek eta erakundeek duten egitekoa indartzea, gazteentzako laguntza-egitura gisa.

6.3. ERASMUS+ EGITASMOAREN EGITURA

Egitasmoak bere baitan hartzen ditu gazteriaren, hezkuntzaren eta kirolaren arloko programak, baina hiru ekintza gakotan egituratuta. Ekintza gako horietan bai ekintza berriak, bai aurretik ezagutzen genituen ekintzak eta programak sartzen dira.

- Egitasmoak bere baitan hartzen ditu gazteriaren, hezkuntzaren eta kirolaren arloko programak, baina hiru ekintza gakotan egituratuta. Ekintza gako horietan bai ekintza berriak, bai aurretik ezagutzen genituen ekintzak eta programak sartzen dira.
- Gazteria. Gazteak Ekinean egitasmoa (trukeak, Europako Boluntario Zerbitzua eta abar).
- Kirolak. EBko kirol-egitasmoa.

Honako hauek dira hiru ekintza gakoak:

- 1. Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta.**
- 2. Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana.**
- 3. Erreforma politikoei laguntzea.**

Gazteriaren esparruan:

1. Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta:

- Gazteen mugikortasuna: gazteen trukeak, Europako Boluntario Zerbitzua eta ekintza berritzaileak.
- Gazteriaren arloan lan egiten dutenen mugikortasuna.

2. Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana:

- Garapenerako, gaitasunak indartzeko eta ezagutzak trukatzeko laguntza, erakundeen arteko elkarlana-akordioen bitartez.

3. Erreforma politikoei laguntzea:

- Gazteriaren arloko Europar Batasuneko agenda politikoaren aplikazioa.
- Kualifikazioak garatzeko tresnen aplikazioa (Youthpass).
- Europako eremuko sareentzako eta GKEentzako laguntza.
- Elkarrizketa politikoa Europa- eta nazioarte-mailan eta elkarrizketa egituratua gazteekin (topaketak gazteen eta gazteen arloko arduradun politikoen artean).

6.4. NORK HAR DEZAKE PARTE?

Norbanakoak: ikasleak, irakasleak, hezitzaileak, lan-praktikak egin dituzten edo helduen heziketako programetan parte hartzen duten pertsonak, boluntarioak, gazteak —13 eta 30 urte bitartekoak, ekintzen arabera—, eta hezkuntzan, prestakuntzan eta gazterian jardunean dauden erakundeetan lan egiten duten pertsonak.

Erakundeak: pertsonen parte-hartzea Erasmus+ egitasmoan erakunde publiko nahiz pribatuen edo pertsonen taldeen bidez gauzatzen da beti.

6.5. EGITASMOAN PARTE HARTZEN DUTEN HERRIALDEAK

- **Europar Batasuneko kide diren 28 Estatuak.**

- **Europar Batasunetik kanpoko herrialdeak:**

Mazedoniako Yugoslaviar Errepublikak / Liechtenstein / Suitza / Norvegia / Turkia / Islandia.

- **Auzo-herrialde elkartuak:**

Mendebaldeko Balkanak (1. eskualdea):	Ekialdeko Elkarteko herrialdeak (2. eskualdea):	Hego Mediterraneoko herrialdeak (3. eskualdea):	Errusiako Federazioa (4. eskualdea):
Albania Bosnia-Herzegovina Kosovo Montenegro, Serbia	Armenia Azerbaijan Bielorrusia Georgia Moldavia, Nazioarteko Zuzenbideak aintzatetsitako Errusiako lurraldea	Aljeria Egipto Israel Jordania Libano Libia Maroko Palestina Siria Tunisia	Nazioarteko Zuzenbideak aintzatetsitako Ukrainako lurraldea

6.6. EKINTZEN DESKRIBAPENA

6.6.A. EKINTZA 1: Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta

Ikaskuntzagatiko pertsonen mugikortasunak honako gai hauetan **lagunduko** du:

- Egitasmoan parte hartzen duten herrialdeen artean **ikaskuntza ez formaleko eta informaleko jarduerak** egin nahi dituzten gazteen mugikortasuna.

- Gazteen trukeak eta boluntario-lana, Europako Boluntario Zerbitzuaren bitartez.

- Mugikortasunari buruzko xedapenetan jasota ez dauden ekintza berritzaileak.

- **Gazteen begirale gisa edo gazteen erakundeetan lan egiten duten pertsonen mugikortasuna**, bai eta agintari gazteena ere. Mugikortasun-modu honek prestakuntzako eta sareko laneko jardueren forma har dezake.

- Gazteen begirale gisa edo gazteen erakundeetan lan egiten duten pertsonen mugikortasuna, bai eta agintari gazteena ere, **herrialde elkartuetara** eta herrialde elkartuetatik, bereziki, auzo-herrialdeetatik. .

Egitasmoaren finantziarioari dagokionez, berritasun nagusia joan-etorrien kostuen kalkuluarekin lotuta dago. Joan-etorri bakoitza joan-etorriaren distantzian oinarritutako kuota jakin batzuen bitartez finantzatuta dago. Laguntza eta barne har daitezkeen kostu guztiak **egitasmoaren gida**, Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoaren webgunean www.oapee.es/oapee/inicio/sepie.html.

a. 1. EKINTZA. Gazteen trukeak

Gazteen trukeei esker, herrialde desberdinetako gazteek elkar ezagutzeko eta elkarrekin bizitzeko aukera izango dute, 5 egunetik 21 egunera. Trukeak dirauen artean, parte-hartzaileek programa bat garatuko dute (tailerren, ariketen, eztabaiden, simulazioen aire zabaleko jardueren eta abarren nahasketa), parte-hartzaileek eurek trukearen aurretik diseinatua eta planifikatua.

Gazteen trukeei esker, gazteek gaitasunak garatzen dituzte, gizarte-gaien inguruan kontzientziatu; kultura eta bizimodu berriak ezagutu, batez ere parekoen arteko ikaskuntzaren bitartez; eta elkartasuna, demokrazia eta antzeko balioak bultzatu.

Ikaskuntza **hezkontza ez formaleko metodoen bidez gauzatzen da.**

Trukeak Europar Batasunaren barruko eta kanpoko bi erakunderen edo gehiagoren arteko elkarlan transnacionalean oinarrituta daude.

Jarraian zerrendatzen diren jarduerak **EZIN dira Europar Truke gisa diruz lagunduak izateko hautagaiak izan:**

- Ikasketa-bidaia akademikoak
- trukeak, onura ekonomikoa lortze aldera
- turismotzat har daitezkeen truke-jarduerak
- jaialdiak
- opor-bidaiak
- ikuskizunen birak

Jardueraren iraupena	5 egunetik 21 egunera, bidaietarako egunak kanpo
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	Irteerako eta harrerako herrialdeetako 13 eta 30 urte bitarteko gazteak
Parte-hartzaile kopurua eta talde nazionalen osaera	Gutxienez, 16 parte-hartzaile; gehienez, 60 (taldeetako buruak kanpo) Gutxienez, 4 parte-hartzaile taldeko (taldeetako buruak kanpo) Talde nazional bakoitzak taldeko buru bat izan behar du, gutxienez (gazteen trukean gazteei lagun egingo dien heldua, ikaskuntza eraginkorra, babesa eta segurtasuna bermatuko dituena).

b. 1. EKINTZA. Gazteen dinamizatzaileen mugikortasuna: prestakuntza eta sareko lana

Jarduera hau gazteen dinamizatzaileen garapen profesionalerako lagungarria da, honakoen bitartez:

- Gazteen dinamizatzaileen parte-hartzea mintegietan, prestakuntza-ikastaroetan, elkarre-jardueretan eta ikasketa-bisitetan.
- Atzerrian gazteriaren arloan jardunean dagoen erakunde baten jarduera profesionalak behatzea.

Jardueraren iraupena	2 egunetik 2 hilera, bidaietarako egunak kanpo
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	Adin-mugarik gabe. Parte-hartzaileak irteerako nahiz harrerako erakundearen herrialdekoak izan behar dira.
Parte-hartzaile kopurua	50 parte-hartzaile, gehienez ere (hezitzaileak eta bideratzaileak barne), proiektuaren jardura bakoitzean.

c. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS)

EVSk aukera ematen die 17 eta 30 urte bitarteko gazteei borondatezko zerbitzu batean engaiamendu pertsonala adierazteko, 12 hilabetera arte, egoitzako herrialdea ez den beste batean. **Boluntario-lana ez da ordaintzen, irabazi-asmorik gabekoa da, eta jardunaldi osoa.**

Jardueraren iraupena	2 hiletik 12 hilera (jardura hilaren lehen zazpi egunetan hasi behar da) 2 astetik 12 hilera 10 boluntarioko taldeentzat edo aukera murriztuak dituzten gazteentzat
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	17 eta 30 urte bitarteko gazteak, irteerako erakundearen herrialdekoak. Boluntarioek EVS proiektu bakarrean parte har dezakete. Salbuespena: gehienez ere 2 hilabete iraun duen EVS proiektu batean parte hartu duten boluntarioek beste EVS proiektu batean parte hartu ahal izango dute.
Parte-hartzaile kopurua	Boluntario 1, gutxienez, eta 30, gehienez ere.



OHARRA: Europako Boluntario Zerbitzuan parte hartzeko informazio gehiago duzu 9. Atalean (Boluntario-lana).

d. 1. EKINTZA. Europako Boluntario Zerbitzuaren eskala handiko ekitaldiak (EVS LS)

Ekintza honek EVSren eskala handiko ekitaldiak (**gutxienez 30 boluntariokoak**) laguntzea du helburu, gazteriaren, kulturaren eta kirolaren arloko Europa- edo mundu-mailako ekitaldien baitan (adibidez, Gazteen Munduko Goi Bilera, Europako Kulturaren Hiriburua, Europako Gazteen Hiriburua, Europako kirol-txapelketak).

Zer jarduerarako da lagungarri ekintza hau?

- EVS: konpromisoa **ordaindu gabeko eta jardunaldi osoko** boluntario-lanaren bitartez adierazteko beta ematen die 17 eta 30 urte bitarteko gazteei, atzerrian eta, gehienez ere, 2 hilabetez. Boluntarioei aukera ematen zaie **Europa- edo nazioarte-mailako ekitaldi baten baitan antolatzen diren jardueretan parte har dezaten.**
- **Jarduera osagarriak:** hitzaldiak, mintegiak eta tailerrak ekitaldia burutu bitartean, boluntario-lana eta, nagusiki, EVS sustatzera bideratuak.

Jardueraren iraupena	14 egunetik 2 hilera, bidaietarako egunak kanpo.
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	Egitasmoko herrialde bateko (proiektua egiten den herrialdea ez dena) edo elkartutako herrialde auzo bateko 17 eta 30 urte bitarteko gazteak. Boluntario bakoitzak EVS LS proiektu bakarrean har dezake parte Erasmus+ egitasmoaren indarraldian.
Parte-hartzaile kopurua	Gutxienez, 30 boluntario.

6.6.B. B 2. EKINTZA: Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana

Ekintza hau honetarako izango da lagungarri:

1. Elkarre estrategikoak, ekimen bateratuak garatu eta abiarazteko, **gazteen ekimenak eta herritartasun aktiboa, gizarte-berrikuntza**, bizieta demokratikoan **parte-hartzea** eta enpresa-izpiritua sustatzen duten proiektuak barne, parekoen arteko ikaskuntzaren eta esperientzien trukearen bitartez.
2. Honako alderdi hauek bultzatuko dituzten plataforma informatiko laguntzaileak:
 - parekoen arteko ikaskuntza,
 - alderdi hauetan oinarritutako gazteriaren arloko lana:
 - ezagutzan
 - mugikortasun birtualean, eta
 - praktika egokien trukean.
3. Gaitasunen garapena eta indarketa eta ezagutzen trukea, **nagusiki parekoen arteko ikaskuntzaren bidez, egitasmoko herrialdeetako eta elkartutako herrialdeetako erakundeen artean elkarre-akordioak sinatuta.**

a. 2. EKINTZA. Elkarketa estrategikoak

Elkarre estrategikoak (**Strategic Partnership** delakoak) **elkarlanean aritzeko** aukera ematen die hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gazteriaren arloetan jardunean dabilzan erakundeei, **enpresei, administrazio publikoei** eta hainbat sektore sozioekonomikotan jardunean dauden **gizarte zibileko erakundeei** elkarlanean aritzeko, honako helburu hauek lortze aldera:

- Irakaskuntzaren, prestakuntzaren, ikaskuntzaren eta gazteen dinamizazioaren arloetan kalitate-maila altuak lortzeko praktika berritzaileak ezartzea.
- Instituzioak modernizatzea.
- Berrikuntza soziala sustatzea.

Gazteriaren arloan gauza daitezkeen jardueren tipologia:

- Gazteen dinamizazioaren arloko elkarlan-jarduerak
- Gaitasunen aintzatespena eta balidazioa
- Gazteriaren arloko ekimen transnazionalak

Elkarte estrategikoetan diruz lagunduko diren prestakuntza-, ikaskuntza- eta irakaskuntza-jarduketak:

- ***Ikasleen, hezitzaileen, ikasle helduen eta gazteen mugikortasun mistoa (mugikortasun fisikoa: 5 egunetik 2 hilera)***

Mugikortasun fisikorako tarte txiki bat edo batzuk (guztira, 2 hilabete, gehienez ere) eta **mugikortasun birtuala konbinatzen dituzten jarduerak** (adibidez, informazio- eta komunikazio-teknologiak elkarlanerako gune gisa erabiltzea, bideokonferentziak, gizarte-komunikabideak eta abar, mugikortasun fisikoaren emaitzak osatze edo luzatze aldera).

- ***Gazteen dinamizatzailen mugikortasuna (2 hiletik 12 hilera)***

Gazteen dinamizazio-lana beste herrialde batzuetan nola gauzatzen den jakiteko aukera ematen die dinamizatzaileei. Hartara, gaitasun profesional, pertsonal eta interkulturalak indartzen dira.

Gazte-eragileek atzerrian lan egiteko aukera dute 2 hiletik 12 hilera, harrerako erakundearen eguneroko lanean aktiboki parte hartuta eta, aldi berean, **profila aberastu egiten dute**, landa-laneko profesional gisa.

- ***Gazteen ekimen transnazionalak***

Elkarte Estrategikoen bidez Gazteen Ekimen Transnazionalak laguntzen dira, programako herrialde desberdinetako gazteen **bi taldek edo gehiagok garatuak eta gizarte-konpromisoa eta ekintzaile-sena sustatzera bideratuak.**

Gazteek hasi, diseinatu eta gauzatutako proiektuak dira gazteen ekimenak. Horrela, aukera ematen zaie euren ideiak probatzeko, **proiektuen plangintzan eta ezarpenean zuzenean eta aktiboki parte hartzeko beta** emango dieten ekimenen bitartez. Gazteen ekimen batean parte hartzeak ikaskuntza ez formalerako esperientzia garrantzitsua dakar.

Ekimen transnazonala gauzaten duten gazteek **begirale** baten —gazteekin lanean esperientzia duen pertsona baten— laguntza izan dezakete.

Begiraleak ez du ekimenean parte hartuko, baina gazteen taldeari lagunduko dio ekimena prestatzen, burutzen eta ebaluatzen, eta ikaskuntza-prozesua bultzatuko du.

Parte-hartzaile kopurua	Gutxienez egitasmoko 2 herrialdeetako 2 erakunde (gazteria)
Jardueraren iraupena	6 hiletik 2 urtera. Aparteko kasuetan, Elkarte Estrategiko baten iraupena 3 urtera arte luza daiteke, onuradunak hala eskatzen badu eta eskumena duen Agentzia Nazionalaren oniritziz. Kasuotan, diru-laguntzaren zenbateko osoa ez da aldatuko.

b. 2. EKINTZA. Gaitasunak indartzeko proiektuak

Elkarlan-proiektu transnazonalak dira, programako herrialdeetan eta munduko beste herrialde elkartuetan gazteriaren arloan jardunean dauden erakundeen arteko **alde anitzeko elkartetan oinarrituak**. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloetako eta bestelako sektore sozioekonomikoetako erakundeek ere parte har dezakete.

Proiektuaren iraupena	9 hiletik 2 urtera.
------------------------------	---------------------

Jarduerak:

- Elkarriketa politikoa, elkarlana, sareko lana eta gazteriaren arloko praktiketako trukeak sustatzea: mintegiak, konferentziak, tailerrak eta topaketak.
- Gazteriaren arloko eskala handiko ekitaldiak.
- Informazio- eta kontzientziazio-kanpainak.
- Gazteen dinamizazioa komunikatzeko (hedatzeko) forma berriak sortzea, bereziki honakoen bitartez: ikaskuntza-material ireki eta malguak, elkarlan birtuala eta hezkuntza-baliabide irekiak.

- Informazioa, komunikazioa eta media direlakoetako tresnak garatzea.
- Gazteen dinamizaziorako metodo, material eta tresna berriak garatzea, bai eta curriculum-materialak gazteen dinamizaziorako, prestakuntza-moduluak eta Youthpassen moduko agiri gisako tresnak.

6.6. C 3. EKINTZA. Erreforma politikoei laguntzea

<p>Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • GKEak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, elkarteak • Toki-mailako erakunde publikoak • Europa-mailako gazteen GKEak, egitasmoaren herrialdeetako batean kokatuta daudenak. <p>Elkartutako herrialde auzoetako erakundeen parte har dezakete, baina ezin dute eskaririk aurkeztu.</p>
--	---

Jarduerak:

- Europar Batasunak gazteriaren arloan duen agenda politikoa aplikatzea, Koordinazio Metodo Irekia baliatuta.
- Egitasmoko herrialdeetan, kualifikazioen aintzatespenerako eta gardentasunerako EBko tresnak aplikatzea, bereziki, Youthpass.
- Europar Batasunaren mailako sareei eta Europako gazteen esparruko GKEei laguntzea.
- Elkarrizketa politikoa Europako alderdi interesatuekin eta elkarrizketa egituratua gazteekin.
- Europako Gazteen Foroa, gazteriaren arloko lana garatzeko baliabideen zentroak eta Eurodesk sarea.
- Herrialde elkartuekin eta nazioarteko erakundeekin politikei buruzko elkarrizketak egiteko laguntza.

a. 3. EKINTZA. Elkarrizketa egituratua: topaketak gazteen eta gazteen arloko arduradun politikoen artean

- Gazteen eta arduradun politikoen arteko topaketa nazionalak eta mintegi transnacionalak, elkarrizketa egituratuaren edo Gazteriaren Estrategi Europarraren alderdi garrantzitsuei buruz.
- Europar Batasunaren lehendakaritza duen Estatu kidean seihileko bakoitzean antolatzen diren Youth Conference direlakoak prestatzeko topaketa nazionalak eta mintegi transnacionalak.
- Europako Gazteriaren Astean antolatzen diren jarduerekin lotuta dauden gazte-politikei buruzko eztabaidak eta informazioa sustatzen duten ekitaldiak.
- Gazteei kontsultak egitea (sareko kontsultak, iritzi-inkestak), gazteek bizitza demokratikoan parte hartzeari lotutako premiak ezagutze aldera.
- Gazteen eta arduradun politikoen arteko topaketak eta mintegiak, informazio-ekitaldiak edo eztabaidak, gazteek bizitza demokratikoan parte hartzeari buruz.
- Institutuzio demokratikoen funtzionamendua eta politikariek instituzio horietan betetzen duten papera simulatzen duten ekitaldiak.

6.7. ERASMUS+ HIZKUNTZA IKASTEKO LAGUNTZA

Hizkuntzak online ikasteko laguntzak (Online Linguistic Support – OLS) Erasmus+ mugikortasun-programaren parte hartzaileei hizkuntzak ikasten laguntzen die. **OLS** delakoak Erasmus+ epe luzerako mugikortasunean (1. ekintza nagusia) parte hartzen duten pertsonen aukera ematen die atzerrian ikasteko, lan egiteko edo boluntario-lanak burutzeko erabiliko dituzten atzerriko hizkuntza-gaitasunak balioztatzeko. Horrez gain, hizkuntza-ikastaro bat egin ahal izango dute online beren gaitasunak hobetze aldera.

OLS ondorengo hizkuntzetan dago erabilgarri: alemana, ingelesa, gaztelania, frantsesa, italiara eta nederlandera.

- OLS <http://erasmusplusols.eu/es/>
- Maila-frogak: <http://erasmusplusols.eu/es/prueba-de-nivel-2/>
- Hizkuntza-ikastaroak: <http://erasmusplusols.eu/es/cursos-de-idiomas/>